



**BAZTANGO UDALEKO BERDINTASUN BATZORDE IREKIAREN BILKURA**  
***REUNIÓN DE LA COMISIÓN ABIERTA DE IGUALDAD DEL***  
***AYUNTAMIENTO DE BAZTAN***

<b>Data: 2013ko ekainaren 27</b>	<i>Fecha: 27 de junio de 2013</i>
Hasiera ordua: 16:30 Bukaera ordua: 18:30 Lekua: Baztango Udala	<i>Hora de inicio: 16:30</i> <i>Hora de finalización: 18:30</i> <i>Lugar: Ayuntamiento de Baztan</i>
<u>Bertaratutakoak:</u>  Garbiñe Elizegi Narbarte (Alkatea), Idoia Gillenea, Nora Salbotx, Karlos Beristain eta Irune Gaston Ripa (Berdintasun Teknikaria)	<u>Asistentes:</u>  <i>Garbiñe Elizegi Narbarte (Alcaldesa), Idoia Gillenea, Nora Salbotx, Karlos Beristain e Irune Gaston Ripa (Técnica de Igualdad)</i>
<u>Gai –zerrenda:</u>  1. Aitzineko Batzordeko aktaren onartzea (2013/04/17). 2. Berdintasun teknikari lanposturako diru-laguntzaren deialdiaren berri ematea (Nafarroako Gobernuko Berdintasunerako Institutua) 3. Nafarroako Gobernuko Berdintasunerako Institutuko "Eta Jaietan zer?" kanpainaren berri ematea. 4. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren formazioa, Nafarroako tokiko berdintasun teknikariekin batera antolatua: "Sexu erasoen aurrean lehenengo esku-hartzeko jarraibideak" (Udaltzainei zuzendua).	<u>Orden del día:</u>  <i>1.- Aprobación del acta de la anterior Comisión (17/04/2013)</i> <i>2.- Informar sobre la convocatoria de subvenciones para el puesto de técnica de igualdad.</i> <i>3.- Informar sobre la campaña del Instituto para la Igualdad del Gobierno de Navarra: "Y en fiestas, qué?"</i> <i>4.-. Formación de la Federación Navarra de Municipios y Concejos, organizada por las técnicas de igualdad municipales de Navarra y dirigida a policía local: "Pautas para la primera intervención ante agresiones sexuales".</i>

<p>5. Genero indarkeriaren inguruko Nafarroako Lege Berriaren berri ematea.</p> <p>6. Berdintasun Plana: galdetegiak, eztabaida taldeak eta elkarrizketak</p> <p>7. Norberak lekarkeena</p>	<p>5.- <i>Informar de la nueva Ley de Navarra sobre la violencia de género.</i></p> <p>6.- <i>Plan de Igualdad: cuestionarios, grupos de discusión y entrevistas</i></p> <p>7.- <i>Otros</i></p>
<p><u>Lehendabiziko puntua:</u></p>	<p><u>Primer punto:</u></p>
<p>Aitzineko bileraren akta aho batez onartzen da.</p>	<p><i>Se aprueba el acta de la anterior sesión por unanimidad.</i></p>
<p><u>Bigarren puntua:</u></p>	<p><u>Segundo punto:</u></p>
<p>Berdintasun teknikaria kontratatzeke diru-laguntzaren deialdiaren berri ematen da (Nafarroako Gobernu Berdintasunerako Institutua). Proiektua ekainean aurkeztu dugu eta orain erantzunaren zain gaude. Iraila baino lehenago ez dugu erantzunik jasoko.</p> <p>Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko diru-laguntza ere eskatu dugu zenbait jardura abian jarri ahal izateko; institutuan tailerrak eta solasaldi bat egiteko, hain zuzen ere. Honetan ere, erantzunaren zain gaude. Urrian beranduez jakinen dugu ea diruz lagunduko diguten edo ez.</p>	<p><i>Se informa sobre la convocatoria de subvenciones para la contratación de la técnica de igualdad (Instituto para la Igualdad del Gobierno de Navarra). Hemos presentado el proyecto en junio y estamos a la espera de la respuesta. No recibiremos contestación antes de septiembre.</i></p> <p><i>Hemos solicitado también subvención al Departamento de Salud del Gobierno de Navarra, para poner en marcha diversas actividades; en concreto, para la celebración de talleres y una charla en el instituto. También estamos a la espera de respuesta. Como muy tarde en octubre sabremos si dispondremos de ayuda o no.</i></p>
<p><u>Hirugarren puntua:</u></p>	<p><u>Tercer punto:</u></p>
<p>Nafarroako Gobernu "Eta Jaietan zer?" kanpaina azaldu da, helburuak, funtzionamendua, ... Irudia ere ikusi da. Besta giroan eginen den sentsibilizazio kanpaina da hau. Herrietako alkateak jakinaren gainean</p>	<p><i>Se explica la campaña del Gobierno de Navarra: "Y en fiestas, qué?", los objetivos, funcionamiento... Se ve también la imagen. Se trata de una campaña de sensibilización que se llevará a cabo durante la fiestas.</i></p>

<p>daude eta eskatu zaie besta batzordeei dugun informazioa zabaltzea, parte hartuko duten edo ez erabaki dezaten.</p> <p>Zenbait herrik baietza eman digute jada eta gainontzekoen erantzunaren zain gaude. Baietza eman dutenek kanpainaren irudia haien besta programetan sartu dute.</p> <p>Bestela, kanpainako irudia txosnetan paratzeko aukera ere hor dago, bi herrik hori egin dute, ikusita haien programak jada itxiak zeudela.</p> <p>Agenda kulturean ere irudia sar daiteke, iraileko agendan ager daiteke. Kultur arloarekin honen inguruan solastuko gara.</p> <p>Udaleko web orrian ere irudia zintzilikatuko da eta kanpainaren berri emanen da.</p>	<p><i>Los y las alcaldes de los pueblos están al corriente de ello y se les ha pedido que difundan la información de la que disponemos a las comisiones de fiestas, para que valoren si participan o no.</i></p> <p><i>Algunos pueblos ya nos han confirmado su participación y estamos a la espera de las respuesta de otros. Los que han dicho que sí han incorporado la imagen de la campaña a sus programas de fiestas.</i></p> <p><i>Si no, existe la posibilidad de poner la imagen de la campaña en las txosnas; dos pueblos han procedido de ese modo, dado que sus programas estaban cerrados.</i></p> <p><i>La imagen también se puede introducir en la agenda cultural; puede aparecer en la agenda de septiembre. Hablaremos sobre ello con el área de cultura.</i></p> <p><i>La imagen se colgará en la página web municipal y se dará información de la campaña.</i></p>
<p><u>Laugarren puntua:</u></p>	<p><u>Cuarto punto:</u></p>
<p>Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari Nafarroako berdintasun teknikarien sareak, dirua eskatu zion formazio zehatz bat egin ahal izateko, besta inguruan eta aisialdi inguruan, suertatzen diren eraso sexualen bideratze egokiari buruzko ikastaroa, Udaltzainei zuzendua gehien bat eta orokorrean toki entitateetan gaiarekin erlazioa duen edozein langileari.</p> <p>Federazioarekin bildu zen Nafarroako berdintasun teknikarien sarea eta baietza jaso genuen. Ekainaren 25ean</p>	<p><i>La Red de técnicas en igualdad de Navarra solicitó ayuda a la Federación Navarra de Municipios y Concejos para poder llevar a cabo una formación concreta en torno a la fiesta y al ocio, un curso sobre cómo intervenir cuadamente ante agresiones sexuales, sobre todo dirigido a policías municipales y, en general, a todo el personal que tienen relación con el tema en esa primera intervención.</i></p> <p><i>La red de técnicas de igualdad de</i></p>

<p>izan zen ikastaroa eta arrakastatsua izan zen, 65 pertsonatik gora bertaratu ziren. Formazioarekin segitzeko beharra azaldu zen ikastaroan (jasotako ebaluaketetan, ahozko komentarioetan...) eta beste arlo batzuetara zabaltzeko beharra ere, Osasun arloko larrialdietan ibiltzen diren langileei, beste polizia motei, aguazilei, ... oro har, emakume erasotuekin lehen esku-hartzea egiten ahal duten pertsona guztiei.</p> <p>Baztanen, udaltzainak ez ziren ikastarora joan, zerbitzu minimoak betetzeko larri dabiltzalako, langile batzuk falta direnez, ez zuten ikastarora joaterik izan. Hurrengo formazioetan parte hartzea ongi legokeela komentatu da.</p>	<p><i>Navarra se reunió con la Federación y recibimos una respuesta afirmativa. El curso se celebró el 25 de junio con la asistencia de más de 65 personas. Se incidió en la necesidad de seguir con la formación (en las evaluaciones recibidas, en los comentarios verbales...) así como en la necesidad de extenderla a otros ámbitos: al personal de Salud, a otro tipo de policías, a los alguaciles..., en general, a todas las personas que pueden llevar a cabo la primera intervención con la mujer agredida.</i></p> <p><i>En Baztan, los policías municipales no acudieron al curso, porque se encuentran con dificultades para cubrir los servicios mínimos, dado que falta alguno de los trabajadores. Se comenta que estaría bien que asistieran a la siguiente formación.</i></p>
<p><u>Bosgarren puntua:</u></p>	<p><u>Quinto punto:</u></p>
<p>Genero indarkeriaren inguruko Nafarroako Lege Berria osatzen ari dira; egun indarrean dagoena 2002 urtekoa da eta Nafarroako Gobernuak Berdintasunerako Institutuak teknikariei azaldu zionaren arabera, aurtan prest egonen da.</p> <p>Berdintasun teknikariei ekarpenak egitea eskatu zitzairen eta Baztango teknikariak ere horretan parte hartu du.</p> <p>Honen guztiaren berri eman da.</p>	<p><i>Se está elaborando la nueva Ley navarra sobre violencia de género; la que está actualmente en vigor es del año 2002. La nueva ley pretende estar lista en 2013, según explicó Gobierno de Navarra.</i></p> <p><i>Se pidió a las técnicas de igualdad que hicieran aportaciones, y la trabajadora de Baztan también ha participado.</i></p> <p><i>Se informa de todo ello.</i></p>
<p><u>Seigarren puntua:</u></p>	<p><u>Sexto punto:</u></p>
<p>Berdintasun Planari buruzko egoera azaltzen da.</p> <p>Diagnostikoa egiteko sortu den galdetegiaz aritu gara lehenbizi; egin</p>	<p><i>Se explica la situación del Plan de Igualdad.</i></p> <p><i>Primero hablamos sobre el cuestionario que se ha diseñado para</i></p>

<p>den difusioa azaldu da.</p> <p>Momentuz ez dugu jakiterik zenbat galdetegi bete den, internetez osatu direnak izan ezik. Heldu den astean hautestontziak eta galdetegiak jasoko ditugu; beraz, zenbat galdetegi osatu diren jakinen dugu.</p> <p>Planean erabiliko den hurrengo metodologia azaldu da, eztabaida taldeak, hain zuzen ere. Teknikariak bere proposamena luzatu die bertaratukoei eta denen artean, zenbat talde, nola heldu hauekara...zehaztu da.</p>	<p><i>realizar el diagnóstico; se comenta la difusión realizada.</i></p> <p><i>De momento no podemos saber cuántos cuestionarios se han rellenado, salvo los rellenados por internet. La próxima semana recogeremos las urnas y los cuestionarios, y conoceremos cuántos se han cumplimentado.</i></p> <p><i>Se ha explicado la metodología que se empleará en el Plan; los grupos de discusión, en concreto. La técnica de igualdad ha expuesto la propuesta a las personas asistentes, y entre todas, han definido cuántos grupos, cómo acceder a los mismos...</i></p>
<p><u>Zazpigarren puntua:</u></p>	<p><u>Séptimo punto:</u></p>
<p>Bailaran eraso sexista bat egon omen da eta honen inguruan solastu egin da.</p> <p>Guraso eskoletan berdintasun gaia lantzeko iritsi den eskaera komentatu da, gizarte zerbitzuekin solasteko erabakia hartu da. Udal arloen arteko elkarlana sustatzeko beharra aipatu da.</p> <p>Herritarrei zuzenduko zaien jarduera baterako batzordeko kide batek bere burua eskeini du, hizlari moduan aritzeko. Honi buruz solastu egin da.</p> <p>Mutildantzei buruz ere solastu da.</p>	<p><i>Al parecer se ha producido una agresión sexual en el Valle y se habla sobre ello.</i></p> <p><i>Se comenta la solicitud recibida para trabajar el tema de la igualdad en las Escuelas de Padres y Madres, y se explica que se hablará con Servicios Sociales. Se comenta que es necesario promover la colaboración entre las áreas municipales.</i></p> <p><i>Una persona asistente se ofrece para realizar una actividad. Se tendrá en cuenta la propuesta en la programación de actividades.</i></p> <p><i>También se habla sobre las Mutildantzaz.</i></p>

Elizondon, 2013ko ekainaren 27an.  
En Elizondo, a 27 de junio de 2013